

arautegia

• 1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA

AIZKARDI Mendizale Elkarteak antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Partehartzea zabaltzeko asmoz, bi ibilbide prestatuko dira; bata 10. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdiko. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da.

• 2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnizazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkarteak jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arazoak tarteko.

• 3. artikulua: IBILBIDEA

Aizkardiko 43. ibilaldia 2011ko martxoaren 27an egingo da, iteera eta helmuga Villabonara izango direlarik. Ibilbide luzeak 43 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Anoeta (69m) - Hemialde (300m) - Mendikute (804m) - Erniozabal (1.010m) - Ubeltz (1017m) - Ernio (1075m) - Zelatun (846m) - Gazume (1003m) - Iturriotz (594m) - Altzuzelai (427m) - Pagoeta (717m) - Aia (320m) - San Pedro Auzoa (62m) - Peusgarate (420m) - Basopeta (300m) - Zizurkil (58m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.450 metroko desnibel gehitua du, BEDERATZI ORDU TERDI inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 24 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Anoeta (69m) - Hemialde (300m) - Mendikute (804m) - Lizarbakarra (835m) - Atxutegi (680m) - Alkiza (345m) - Laumugarrieta (200m) - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1100 metro inguruko desnibel gehitua du, BOST ordu inguruan burutzen dena.

• 4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA

Informazioa (Martxoaren 1etik aurrera) :

- Telefonoa (lanegunetan 20etatik 22etara): 649717182

- email : ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea :

Izen-ematea DOAKOIA da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin daiteke:

- Interneteko helbidea: <http://www.zirkuitua.com>

- AIZKARDI Mendi Elkartearen lokalean, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara

- Ibilaldiaren egunean bertan.

Izena emateko behar diren datuak:

- federazioko lizentzia zenbakia, EHNA edo DNI,

- izena eta bi abizen,

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren izena ere bai.

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 43.Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeak aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa - Paseo Errotaburu, 1-9º-3ª. 20018-Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkarte. Apdo.75. 20150-Villabona.

• 5. artikulua: ZERBITZUAK

Elkarteak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-maillez. Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kirolegian.

• 6. artikulua: IRTEERA

Zeharkaldi luzea goizeko ZAZPIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zerbakiarekin. Era mailakatu emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

• 7. artikulua: KONTROLAK

Parte-hartzaileek goian azaldutako ibilbidea egin behar dute, eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontrolatetik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denboratartean egongo dira zabalik.

• 8. artikulua: BALIZAK

Ibilbideak plastikozko zintzen bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

• 9. artikulua: HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute Mendikute, Iturriotz eta San Pedro auzoa kontrolatan.

• 10. artikulua: ERRETIRATZEA

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokiena Iturriotz, Aia eta San Pedro auzoa dira.

• 11. artikulua: BUKAERA

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAR ORDU TERDI (Ibilaldi Luzea) eta SEI (Ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan. Arratsaldeko BOSTAK ETA ERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

43. Aizkardiko Ibilaldia

2011 Martxoak 27

IBILALDI LUZEA

Luzera 43 Km

Desnibela 2400 m

Iraupena 9:30 ordu

Irteera Ordua ... 7:00 etan

IBILALDI MOTZA

Luzera 24 Km

Desnibela 1100 m

Iraupena 5 ordu

Irteera Ordua ... 8:00 etan

ADI ORDU ALDAKETA !!!




10. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria



www.aizkardi.com

Km	LEKUA	ALT	DESNIIB. +	DESNIIB. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	7:00	7:00	7:10
3,1	ANOETA	69	9	0	7:27	7:37	7:52
5,1	HERNIALDE	295	235	0	7:45	8:00	8:20
8,2	ITURRIA	685	630	5	8:15	8:25	8:50
9,5	K-2 : MENDIKUTE-SALDA	700	650	50	8:25	8:40	9:05
9,9	MENDIKUTEko gaina	810	760	50	8:35	8:55	9:15
11,1	TXOTANEN BORDA	835	870	125	8:50	9:10	9:35
11,9	HERNIOZABALeko gaina	1010	1040	130	9:00	9:25	9:53
12,7	UBELTZeko gaina	1015	1100	190	9:10	9:40	10:08
13,5	BASAGAINZULOETAko lepoa	955	1140	285	9:15	9:50	10:20
14,1	AIZPELeko gaina	1065	1250	285	9:20	10:00	10:30
14,7	HERNIOko gaina	1072	1290	315	9:30	10:10	10:40
15,8	ZELATUNeko zelaia	845	1290	545	9:40	10:20	11:00
16,8	GAZUMEko gaina	1005	1455	545	9:50	10:36	11:20
19,2	K-3 : ITURRIOTZ	585	1470	980	10:15	11:10	11:55
21,4	ALTZUZELALEko lepoa	425	1495	1170	10:35	11:35	12:25
22,9	ATXURIKo gaina	670	1750	1178	10:50	12:00	12:52
23,4	HERNIO TXIKI ko gaina	645	1750	1200	10:55	12:05	13:00
24,4	PAGOETAko gaina	720	1835	1215	11:06	12:17	13:15
25,1	PAGOETAko gurutzea	684	1850	1275	11:12	12:26	13:25
28,1	AIA	305	1870	1655	11:40	13:02	14:07
30,9	K-4 : ANDATZA auzoa	70	1890	1920	12:05	13:36	14:47
33,7	SOROZABAL zelaia	332	2190	1950	12:33	14:15	15:33
34,9	PEUSGARATEko gaina	427	2290	1960	12:45	14:30	15:51
38,8	BASOPETAko atsedelukua	280	2350	2160	13:18	15:16	16:44
42,2	ZIZURKIL	60	2400	2400	13:50	15:55	17:25
43,1	K-5 : VILLABONA	60	2400	2400	14:00	16:05	17:35



Km	LEKUA	ALT	DESNIIB +	DESNIIB -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	8:00	8:00	8:10
3,1	ANOETA	69	9	0	8:27	8:37	8:52
5,1	HERNIALDE	295	235	0	8:45	9:00	9:20
8,2	ITURRIA	685	630	5	9:15	9:40	10:10
9,5	K-2 : MENDIKUTE-SALDA	700	650	50	9:25	9:55	10:30
9,9	MENDIKUTEko gaina	810	760	50	9:35	10:10	10:40
11,1	TXOTANEN BORDA	835	870	125	9:45	10:25	11:05
12,8	ATXUTEGIKo gaina	675	890	300	10:00	10:45	11:25
13,1	AILLUTZeko gaina	650	890	325	10:05	10:50	11:30
14,3	ZOPITEko gaina	575	905	420	10:15	11:05	11:45
15,5	BEANDOAIN baserria	360	912	642	10:30	11:20	12:05
16,5	K-3 : ALKIZA	340	940	690	10:35	11:30	12:20
18,0	ZUMITZA baserria	365	1000	725	10:50	11:50	12:40
18,8	BASOZABAL baserria	325	1020	785	11:00	12:00	12:55
20,8	ATEAGA baserria	210	1060	940	11:15	12:25	13:20
21,0	LAUMUGARRIETA	190	1090	960	11:18	12:28	13:25
24,0	K-4 : VILLABONA	60	1090	1090	11:45	13:00	14:10